



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

SEGREGAZIOAREN EZAUGARRITZE ETA ULERMEN PARTEKATUA: erronkak kudeatzeko proposamenak

Ekainaren **4ko** eta irailaren **17ko**
saiotetan jasotako edukien sintesi dokumentua

2022 | 11 | 7

O. SARRERA

0.1 KOKAPENA

Segregazioari aurre egiteko neurriak hartzea da jendarte aurreratu gisa dugun erronkarik nagusienetako bat. Herri ikuspegi batetik adostasunak lantzea funtsezkoa da eta, horretarako, konfiantza sareak josteko guneak sortzea garrantzitsua da.

Horregatik, Eusko Ikaskuntzak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera, gaian sakontzeko erabakia hartu zuen, honako helburuarekin: askotariko segregazioa irudikatuz, segregazioari aurre egiteko jendartearen ahotsa(k) jaso, adostasunerako bide partekatu baterako “dekalogo” osatu eta erantzun proposamenak jaso.

Horretarako, bi foro parte hartzaile burutu ditugu:

- Lehen, 2022ko ekainaren 4an gauzatu zena, jendartearen ahotsa(k) jasotzeko eta adostasunerako bide partekatu baterako “dekalogo” osatzeko helburuarekin.
- Bigarrena, 2022ko irailaren 17an burututakoa, aurreko foroan jasotako ekarpenen sintesi-dokumentua adosteko eta horren gainean iruzkinak eta ekarpenak egiteko aukera bideratu da. Aurreko saioan ezaugarritutako definizio, erronka eta azpimarren sintesia, “ulermen partekatua”, aurkeztu da adostasunak eta erantzuna emateko proposamenak lantzeko helburuarekin.

Lanketa honekin, hiru emaitza nagusi nahi ditugu eskaini eta bueltatu partehartzaile guztiei:

- Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua.
- Adostasunen eta desadostasunen identifikazio partekatua.
- Adostasunei erantzuna emateko eta desadostasunak kudeatzeko proposamenen emaitza kolektiboa.

Aurkezten dugun txostenak saio bietan jasotako ekarpenak biltzen ditu: “Segregazioaren Ezaugarritze eta Ulermen Partekatua, erronkak kudeatzeko proposamenak”.

0.2 EKARPENEN BILKETA ETA AZTERKETA

Ekainaren 4an Miramar Jauregian egindako ariketetan lehenetsi edo gehien errepikatu ziren ideiak bildu genituen, modu sintetikoan. Saioan egindako aurkezpenak eta taldez-talde bildutako eduki guztiak sistematizatuta eta lan saioan jaso moduan (ordenatu, multzokatu edo itzuli gabe), errazten dugun **loturan** kontsulta daitezke.

Behin ekarpen guztiak sailkatu ondoren, interpretaziorako eskema bat eraiki genuen sekuentzia logiko bati jarraiki. Sortutako lehen dokumentuarekin, parte-hartzaileei eraikuntza kolektiborako euskarri zehatza ematea, hizkuntz komuna erdiesteko, bilatzen genuen. Gure ikuspegiak partekatu eta adosteko saiakera honek, talde komunikazio intersubjektiborako baldintzak sortzeko asmoarekin landu genuen, komunikazio eza edota txarto ulertzeak ekidite aldera.

Jasotako edukiaren interpretazioa hiru atal dituen sekuentzia logiko bati jarraiki osatu zen:

- Eskola segregazioaren definizioa eta diagnostikoari lehen hurbilketa.
- Helmugan jarri nahi ditugun jendarte eta hezkuntza ereduak.
- Bien arteko elkarketatik ondoriozta daitezkeen erronka nagusiak eta horiei aurre egiteko balizko proposamenetara hurbilketa.

Bigarren saioan, irailaren 17an burututakoa, aurreko foroan jasotako ekarpenen sintesi-dokumentua adosteko eta horren gainean iruzkinak eta ekarpenak egiteko aukera bideratu zen. Adostasunak eta desadostasunak identifikatzeko lanketa burutuz, aurkeztutako testua hobetzeko, izaera partekatua sendotzeko, ekarpenak jaso ziren. Bigarren ariketa batean, lehenengo sintesi dokumentuan identifikatutako erronkei erantzuna emateko proposamenak jasotzeko lanketa gauzatu zen. Aurrekoan bezala, taldez-talde bildutako eduki guztiak sistematizatuta eta lan saioan jaso moduan (ordenatu, multzokatu edo itzuli gabe), errazten dugun **loturan** kontsulta daitezke.

SEGREGAZIOAREN EZAUGARRITZE ETA ULERMEN PARTEKATUA

1

EZAUGARRITZEA

DEFINIZIOA

“Lurralde eta hezkuntza-maila eta etapa bereko ikastetxeen arteko ikasleen banaketa desberdina eta desorekatua, euren lurralde-jatorri, genero, kultura, hizkuntza, gaitasuna, etnia, erlijioa edo, batik bat, maila sozioekonomikoaren arabera”.

ONDORIOAK

Eskola segregazioak ikasleen hezkuntza aukera berdintasuna hautsi eta desberdinkeria sortzen du.

KAUSAK

Eskola segregazioak eredu sozio-ekonomikoarekin zerikusia du.

DIAGNOSTIKOA

Eskola segregazioa enpirikoki neurtu behar da eta egoeraren tamaina balioesteko indizeak behar dira.

3

ERRONKAK

Egungo egoeratik erdietsi nahi diren helburuetara heltzeko bidean aurrean ditugun erronkak.

JENDARTEAREN INPLIKAZIOA
LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA
KULTURARTEKOTASUNA

FORMAKUNTZA
TOKIAN TOKIKO
GOBERNANTZA
PARTEKATUA

2

ITUN SOZIALA

HELBURU OROKORRA

Justizia sozialak eta ekitateak ardadzen duten jendartea dugu amets.

HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA

Hezkuntza sistemak, jendartearekin eta administrazioekin itundutako estrategia orokor baten bidez, ikasleei euren bizitza egitasmoa garatzeko aukera berdintasuna bermatu behar die.

EUSKARA OINARRI

Jatorrizko hizkuntza eta kultura desberdinetako ikasleen kidesuna eta euskal jendartearen kohesioa lortzeko zutabe ezinbestekoa izan behar du euskarak.

4

IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK KUDEATZEKO PROPOSAMENAK

JENDARTEAREN INPLIKAZIOA
LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA

Gobernua eta klase politikoaren jarduna.
Publikotasunaren definizio berria eta egiturak egokitu beharra.
Plangintza eta lan egiteko molde berriak.

KULTURARTEKOTASUNA

Kulturartekotasunerako hezkuntzaren definizio argi eta parekatu baten beharra.
Ikastetxeetan antolatze eta baliabideak kudeatzeko mekanismo berriak.

FORMAKUNTZA

Irakasleen eginkizuna eta profesional espezializatuak.
Irakaslegaien hasierako prestakuntza (gradua/graduondoa)

TOKIAN TOKIKO
GOBERNANTZA
PARTEKATUA

1. EZAUGARRITZEA

Eskola segregazioaren definizio adostuaren eta egungo egoeraren diagnostiko partekatuen beharra.

1.1 ESKOLA SEGREGAZIOAREN DEFINIZIOA

“Lurralde eta hezkuntza-maila eta etapa bereko ikastetxeen arteko ikasleen banaketa desberdina eta desorekatua, euren lurralde-jatorri, genero, kultura, hizkuntza, gaitasuna, etnia, erlijioa edo, batik bat, maila sozioekonomikoaren arabera”.

1.2 ONDORIOAK. Eskola segregazioak ikasleen hezkuntza aukera berdintasuna hautsi eta desberdinkeria sortzen du.

Jatorri edota identitate desberdinak dituzten ikasleak ikastetxe jakin batzuetan batuz gero, euren aukera berdintasuna eta, ondorioz, pertsona zein talde gisara bizitza duin eta ongizaterako aukera kolokan jartzen da. Baliabide eta esku-hartze egokiak erantzunkidetasunez bideratzen ez badira, egoera segregatua eta hierarkizatua egonkortzen da.

Segregazio mota desberdinak identifika daitezke, besteak beste: sozio-ekonomikoa, arrazalizioari, etniari zein gaitasunari lotutakoak, kulturala, eta hizkuntzari dagokiona baina denek iraupen luzeko eragin komuna dute: talde zaugarriei aukerak kentzea/ukatzea, estigmatizazioa, ghattizazioa, eta diskriminazio ez-bidezkoa errotzea, ekitatea eta jendarte kohesioaren higatzea.

1.3 KAUSAK. Eskola segregazioak eredu sozio-ekonomikoarekin zerikusia du.

Fenomeno honek dimentsio soziokultural, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak ditu eta, une historiko honetan kausak lehia neoliberalari daude lotuta, arrazakeria eta klasismoarekin batera.

Eskola segregazioa, beraz, gertakari sistemiko zabalago baten adierazpidea da eta ondorioz hezkuntzatik bertatik neurriak hartzea ezinbestekoa den arren beste maila batzuetatik ere aurre egiteko ahalegina egin beharko litzateke; besteak beste, orotariko administrazioen eskumenei loturiko politiken bitartez zein komunitatetik oro har. Beraz, desberdintasuna segregazioa bihurtu ez dadin, kudeaketa ausarta behar da.

1.4 DIAGNOSTIKOA. Eskola segregazioa enpirikoki neurtu behar da eta egoeraren tamaina balioesteko indizeak behar dira.

Euskal Herriak dituen demografia eta hirien tamaina ikusita, segregazioa ez da arazo orokorra, baina kezkarria izango litzateke hezkuntza sistemak ez badio irtenbiderik bilatzen. Euskal Herritik kanpoko jatorria duten edota arrazializatutako ikasleei dagokienez, hirietan atzematen da segregazio arazo larriena. Dena den, segregazio mota hau eta beste kausen arabera edonon topa daitezke eta oso hedatuak ez dauden arren, ugaltu daitezke etorkizunean.

Aldaketa demografikoen eta mota guztietako krisiek eragindako migrazio mugimenduen kariatz munduak bizi duen egoera ezegonkorak diagnostiko honen ezaugarriak azkar eta erabat alda ditzake. Inoiz baino beharrezkoagoa da horren jarraipen sistematikoa egitea, eskola segregazioa neurtzeko estandarrak jarri, neurtu eta unean uneko neurriak hartzen joatea, sor daitezkeen arazoak aurreikusiz.

Bestalde, atzeratze demografikoak eskola desberdinen etorkizunari eragiten dio ere, horrek sortarazten dituen beldurrak eta erresistentziak kudeatzeko gaitasuna izan behar du sistemak kolaborazioan oinarritutako joera ahalbideratzeko lehiarako joera ekidituz.

2. ITUN SOZIALA

Segregazioari aurre egiteko itun sozial zabala eta barneratzailea osatu behar da.

2.1 HELBURU OROKORRA. Justizia sozialak eta ekitateak ardazten duten jendartea dugu amets.

Jendarte errealitateak sarritan sufrimendua eta injustizia erakusten dituen arren, ez diogu uko egiten hezkuntzaren bitartez jendarte eredu justu eta ekitatiboa eraikitzeari. Jendarte kohesioa bermatzen duen ongizate ereduak jarraitu behar du izaten gure iparra. Giza garapen iraunkorra eta giza eskubideak izango dira helmugan dugun etorkizun hori eraikitzeko lanabesak, zeren horien bitartez lortuko dugu benetako aukera berdintasuna.

Horretarako itun zabal eta orohartzailea zein botere publikoen bultzada instituzionala behar ditu euskal jendarteak. Askotariko krisiak ezartzen dituen tentsio, gatazka, interes eta kontraesanak bideratzeko oinarrizko aterabide komun, adostua inklusioa bultzatzeko, inklusioa gailendu dadin.

2.2 HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA. Hezkuntza sistemak, jendartearekin eta administrazioekin itundutako estrategia orokor baten bidez, ikasleei euren bizitza egitasmoa garatzeko aukera berdintasuna bermatu behar die.

Gure jendarte desberdintasun ez-bidezkoen isla da hezkuntza segregazioa. Hezkuntza sistemak jendarte eredu hobe bat erdietsi, baina berariazko ekarpena egitea dagokio ikasleek euren gogoko bizitza-egitasmoa burutuko badute. Ikasle bakoitzak, bere jatorria, etnia, kultura, hizkuntza, identitate edo ahalmen sozio-ekonomikoa edozelakoak direlarik, hezkuntza sisteman eta jendartean tokia izan behar du; hezkuntza sistemak ikasleei bizitzan aritzeko ikaskuntzak ziurtatu behar dizkie.

Hezkuntzaren **zerbitzu publiko izaera** bultzatu behar da, aukera berdintasuna lortzeko baliabideak jarriz eta borondate politiko sendoak ehunduz. Ikastetxe bakoitzean dauden berezitasunak kontuan hartuta, tokian tokiko proiektuak irudikatu, egikaritu eta ebaluatu behar dira. Dagoen aniztasuna, traba bezala baino, eskola proiektu sortzaileak erdiesteko pizgarria izan beharko litzateke. Baliabideak beharko dira, noski, baita hezkuntza komunitate osoaren konpromisoa ere.

Baldintza hauek beteaz, hezkuntza sistema bere eginkizun publikoa eraginkortasun handiagoz betetzeko bidean jarriko litzateke, alegia, jendartean dagoen segregazioa, zaugarritasuna eta bazterkeria, hein batean, gutxituz.

2.3 EUSKARA OINARRI. Jatorrizko hizkuntza eta kultura desberdinetako ikasleen kidetasuna eta euskal jendartearen kohesioa lortzeko zutabe ezinbestekoa izan behar du euskarak.

Hezkuntza sistemak euskalduntzeko eta euskal kulturaren ezagutzarako bermea eskaini behar du. Aldi berean norberaren jatorrizko hizkuntza eta kultura aintzakotzat hartu beharko ditu, hezkuntzatik neurri eta esku-hartze zehatzak proposatuz; bide horretan kulturartekotasunaren printzipioak gure errealitatean nola sustatu definitu beharko litzateke, baita politika publikoak horren arabera erregulatu ere.

Euskararen ezagutzak aukera berdintasuna eta jendarte kohesioa elikatzen ditu. Hizkuntz-politika komunitatea egituratzeko eta segregazioari aurre egiteko tresna gisa hobetsi eta kudeatu behar da, hizkuntza ereduak ekartzen ohi duten desberdintasuna gaindituz, besteak beste.

3. ERRONKAK

Egungo egoeratik erdietsi nahi diren helburuetara heltzeko bidean aurrean ditugun erronkak.

- 3.1 JENDARTEAREN INPLIKAZIOA.** Segregazioari buruzko oinarritzko definizio, diagnostiko eta irudikapena erdiestea komeni da, jendarte osoaren ardura, inplikazioa eta konponbide integrala lortze aldera. Ahots desberdinei tokia egin, pertsona eta kolektibo segregatuei bereziki, eta aurre-iritzi eta pribilegioak deseraiki beharko dira, hezkuntza-komunitatea, eta are jendartea osoa, inplikatuz.
- 3.2 LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA.** Segregazioari aurre egitea lehentasun politikoa da, erakunde guztien eta jendarte eremu desberdinen arteko lidergo partekatuan oinarrituta. Bereziki erakunde publikoen ardura da behar diren baliabideak eskaintzea eta politika publiko ausartak bideratzea. Bilakaera demografikoak ekarri ditzakeen lehia logika eta segregazioaren areagotzea ekiditeko, hezkuntza zerbitzu orok bete beharreko eskakizunen berme eta jarraipen publiko eraginkorra ziurtatu beharko litzateke, behar denean neurri zuzentzaileak ezarri sistema publiko unibertsal eta kalitatezkoa helburu.
- 3.3 KULTURARTEKOTASUNA.** Kultur eta hizkuntza desberdinekin begirunetsua den eta aldi berean euskaldundu nahi duen hezkuntza sistema behar dugu. Hizkuntza/kultura gutxitua dugun herria izanik, segregazioari aurre egiteko baliabide nahikoa garatzea beharrezkoa da, aniztasunaren ulermen partekatu berrian izan daitezkeen euskara eta euskal kultura kohesiorako tresnak Euskal Herri osoan.
- 3.4 FORMAKUNTZA.** Horretarako, Zuzendaritza taldeen, irakasleen eta familien formakuntza, eta jendarteko norbanako bakoitzaren jarrera pertsonalen azterketa kritikoa egitea beharrezkoa da. Bide laguntza sozio-hezitzailea eta komunitarioa behar da: programak eta zerbitzu publiko zehatzak atonduz, praktika onak ezagutaraziz, komunikabideen inplikazioa bilatuz edota iruditeriaren berrikusketa kritikorako baliabideak eskainiz, besteak beste. Gaiaren inguruko ezagutzan sakontzea komeni da eta horretan unibertsitateak funtsezkoak dira. Formakuntza erronka hauen barruan, kolektibo eta pertsona segregatuen ahotsak kontuan hartu behar dira eta prozesu desberdinen parte izan.
- 3.5 TOKIAN TOKIKO GOBERNANTZA PARTEKATUA.** Bereizkeria borrokatzeko konpromiso soziala behar denez, politika sistemiko zabala eta saretua landu beharko litzateke non udalek nahikoa eskumen izango duten tokian tokiko erabakiak hartzeko hezkuntza formal zein ez-formalari dagokionez. Auzo eta herrien topaguneak sortzea komeni da, eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektua garatu ahal izateko, komunitate-proiektu gisa. Eskola kokatuta dagoen jendarte-ingurune osoari lotutako lankidetzak lortzea da erronka nagusia.

4. IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK KUDEATZEKO PROPOSAMENAK

A. JENDARTEAREN INPLIKAZIOA

- Eskola segregazioarekin amaitu nahi duen edota, modu positiboan hartuta, Kulturartekotasuna lehentasun gisa hartzen duen hezkuntza sistema eraikitzeak agenda politikoan toki zabala hartu behar du.
- Komunikabide publikoekin lan trinko eta espezifikoak egin behar da, euren programazioetan halako gaiak toki garrantzitsua izan dezaten: kultur aniztasunaren inguruko berriak, esperientzia positiboak komunikazioan, eztabaidak...
- Udal mailako herrigintzan ere gaiak bere espazioa hartu behar du, adibidez, programa politikoetan, udalerrri mailan egiten diren sentsibilizazio kanpainetan, irudigintzan, aisialdiko jardueretan, kirolan, jaietan...
- Hezkuntza ez-formaleko elkarteak eta eragileak paper garrantzitsua jokatu behar dute, bereziki haur eta gazteekin zuzenean lan egiten dutenek.

B. LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA

B.1 Gobernua eta klase politikoaren jarduna.

- Gobernuak eta klase politikoak ausardia behar dute, eskola segregazioa kentzera zuzendutako erabakiak hartzeko eta hezkuntza sistema berria erdiesteko. Batzuetan erabakiak hartzearen beldur dira gobernua eta klase politikoa eta ezer ez egitearen inertzia hautsi behar da. Oposizioak ere protagonista izan behar du: interes partikularrak haratago, oposizio eraikitzailea beharrezkoa da.
- Erabaki politikoak oinarri zientifikoan, ikerlanean eta datuetan oinarrituak izan behar dira.
- Hezkuntza Sailak ditu eskumenak, berak izan behar du lankidetzaren eremua sustatzeko, sortzeko eta koordinatzeko lidertza. Tokian tokiko eremu ezberdinetan, era deszentralizatu batean, eskola-administrazioa-komunitatea proiektu partekatu baten mesedean lanean jarri.
- Halako prozesuetan konfiantza giroa elikatu behar da eta gardentasuna/zintzotasuna komunikazioaren ardatza bihurtu.

B.2 Publikotasunaren definizio berria eta egiturak egokitu beharra.

- Gobernuak eta klase politikoak badute zerbitzu publiko kontzeptuari atxikitzen zaion esanahia zorrotz definitzeko ardura zuzena, gizarte zibilarekin elkarlanean.
- Publikotasuna titulartasunetatik haratago ulertu behar da. Sistemak eta sistematik kanpo nor geratzen den zorrotz ebaluatu behar da eta horren arabera finantzazioa eta funts publikoak erabaki, sareen arteko lehia gainditzeko.
- Publikotasuna definitzeko orduan ikastetxe guztiek, publikoek zein itunpekoek hezkuntza sistema inklusiboagoa, hots egiazko zerbitzu publikoa, bermatzeko baldintza berriak ezarri behar dira.
- Atzeraldi demografikoak planteatuko dituen erronkak aintzat hartu, eta une honetan dauden baliabideak berrantolatu proiektuarekin lankidetzan aritzeko.

B.3 Plangintza eta lan egiteko molde berriak.

- Publikotasun berri hau egikaritzeko, administrazio maila guztietan kolaborazioaren kultura zabaldu, elikatu eta saritu behar da. Eusko Jaurlaritzako, Aldundietako zein Udalerrietako sail desberdinen artean lana sartzeko ahalegina egin behar da, helburu handi eta zirrargarriaren atzetik doan lankidetzako egitura bezala arituz. Halaber, Euskal Herriko erakundearen arteko lankidetzaren harremanak ere sustatu behar dira gobernutik eta gizarte zibiletik.

- Administrazioaren sailen arteko lan koordinatu hau ziurtatzeko bakoitzaren eginkizunak eta ardurak zein diren definitu behar da argiki epe luzeko begirada batez. Honetan, garrantzitsua izango da koherentzia eta zubi-lana lantzea sailen artean, erantzun eta lidergo sendoagoa lortzeko.
- Eskola segregazioa desagertzeko eta publikotasuna beste modu batez ulertzeko helburu dituen egitasmo honek plangintza estrategikoko lan handia eskatzen du: epeak jarri, adierazleak zehaztu, ardurak esleitu, neurri zuzentzaileak hartzeko mekanismoak ezarri eta etengabe ebaluatzeko tresnak behar dira, jendartearen aurrean kontu emateko orduan gardentasuna ziurtatuz.
- Esparru guztietan hezkuntzan lanean ari direnen lan-baldintzak berraztertu behar dira: egutegiak, ordutegiak, formazioa, disponibilitatea, soldatak...

C. KULTURARTEKOTASUNA

C.1 Kulturartekotasunerako hezkuntzaren definizio argi eta parekatu baten beharra.

- Maila politiko orokorrean publikotasuna kontzeptuari zein esangura atxikitzen zaion ebatzi behar den bezalaxe, Hezkuntza sistemak kulturartekotasuna zer den definitu behar du, zeren kontzeptu horretan biltzen baitira eskola segregazioari aurre egiteko proiektu pedagogikoaren gakoak.
- Euskara eta euskal kultura kohesiorako tresna bihurtzeko testuingurua eraiki behar da. Identitatearen inguruko hausnarketa ere egin behar da, anekdota eta folkloretik haratago. Zer da gaur egun euskaldun izatea? Giza eskubideak eta norbanakoaren nortasuna kontuan eduki eta errespetatu behar dira. Bien arteko oreka behar da eta, ildo honetan, euskara irakasteko eta euskalduntzeko estrategiak martxan ipini eta bermatu behar dira.
- Berdintasuna, aniztasuna onartzea, aniztasunetikiko elkarreragina, atzerriko jatorria duten pertsonen kapital kulturala balioan jartzea dira, besteak beste, euskara eta euskal kulturaren zentraltasunarekin gurutzatu ikertu behar diren ideiak.

C.2 Ikastetxeetan antolatzeko eta baliabideak kudeatzeko mekanismo berriak.

- Eskola segregazioa gainditzen duen hezkuntza sistema batek ikasgelatik irten eta ikastetxea ekintza-unitate gisa ulertu behar du; alde horretatik irakasleen eta profesionalen lana eragin eremua berregokitzea beharrezkoa da. Antolaketan beharrei erantzuteko malgutasun handiagoa behar da, ikaskuntza pertsonalizatua (adibidez, euskararekin: mundu guztia ez da oinarri beretik abiatzen).
- Ikastetxeek autonomia izan behar dute daukaten errealitatearen aurrean diagnostiko zorrotza egin eta handik eratorritako proiektua eta kudeaketa plana definitu behar dituzte. Autonomia eta deszentralizazioa bultzatu beharra dago eta honekin batera neurri zuzentzaileak eta lotesleak -kontrol mekanismoak-garatu behar dira. Ikuskaritzak egon behar dira proiektuak aurrera ateratzen direla bermatzeko.
- Halako proiektu autonomoetan ikastetxe bakoitzaren profesionalen esku geratzen da prozesua aurrera eramateko zuzeneko ardura. Honek unean dauden baldintzak eraldatzea eskatzen du:
 - Plantillen egonkortasuna funtsezkoa da, zeren irakasleen eta profesionalen benetako inplikazioa eta konpromisoa arrakastarako ezinbesteko baldintzak baitira.
 - Zuzendariak eta irakasleak babes politikoa eta tresna juridiko eta ekonomikoak behar dituzte, proiektutik eratortzen denari aurre egin ahal izateko.
 - Lan baldintzak aztertu behar dira eta tokiko hezkuntza proiektuak garatzeko denbora laborala (ez bakarrik lektiboa) eraginkortasunez erabili eta doitu.
- Tokiko hezkuntza proiektuak malguak izan behar dira, jarraipena eman behar zaie eta aldatzen, errealitate berrietara egokitzen joan behar dira. Etengabeko ebaluaketa beharko dute, horretarako, diagnostiko ona behar dute oinarrian erabakiak hartu ahal izateko. Ebaluagarria behar du izan ere prozesuan parte hartuko duten gainerako eragileen jardunak, beharrezkoa da botere publikoek politika publikoak ebaluatzea administrazioetik eta unibertsitateetatik.
- Hau dena egiteko ezinbestekoa da Unibertsitatearen kolaborazioa. Ikerketa eta proiektu pilotu berritzaileak beharrezkoak dira, baita ikerketa taldeekin harreman etengabea izateko bide berriak arakatu (ebidentzia enpirikoan oinarritutako proiektu partekatua).

D. FORMAKUNTZA

D.1 Irakasleen eginkizuna eta profesional espezializatuak.

- Irakasleen figura birplanteatu beharra dago. Ikastetxeen autonomia oinarrian duen eredu batek irakasleen eginkizunak birdefinitu behar ditu tokian tokiko proiektuaren arabera. Honetarako etengabeko prestakuntzako prozesuak bultzatu behar dira baina ikastetxe bakoitzak dituen beharrei lotuta egon behar da, ez irakasle bakoitzaren interes pertsonalen arabera.
- Profil espezializatuak behar dira eta Hezkuntza Sailak figura profesionalak sortu eta aitortu behar ditu sistemaren baitan, eskaintako postuak erakargarriak izan behar dute. Zuzendaritza taldeek arreta berezia merezi dute zeren lidergo zabal baten eramale zuzenak izango baitira. Zuzendaritzak eta irakasleak egonkorak eta prestatuak izan behar dira, egonkorki proiektuarekin lotu eta engaiatzen direnak.
- Hezkuntza proiektu autonomoak aurrera eramateko behar den prestakuntza hauek garatzera zuzendu behar dira eta ahalik eta hurbilen egon behar dira eguneroko errealitatek. Profesional espezializatuak hara mugitu beharko lirarteke behar diren prozesuak erraztera.
- Unibertsitateak rol garrantzitsua jokatu behar du ikastetxeetako proiektu autonomo hauek bultzatzen eta adituekin bertatik bertarako lana eginez. Horrez gain figura espezializatuak erdiesteko diseinu lan trinkoa egin behar dute hezkuntza administrazioarekin, baita ondoren garatu eta ebaluatu ere, beti ere hezkuntzaren ikuskera zientifikoan oinarrituta.
- Irakasleen eta profesionalen lana ebaluatu behar da eta horretarako tresnak garatu ere. Ebaluazio hauek irakasleen prestigioa areagotzeko, lanbidean egonkortzeko edota promozionatzeko eta pizgarriak jasotzeko orientatu daitezke.

D.2 Irakaslegaien hasierako prestakuntza (gradua/graduondoa).

- Unibertsitateko ikasketa planak berrikusi eta birdiseinatu behar dira, ikastetxeen autonomia faboratzeko, hizkuntzen kudeaketa gauzatzeko eta kulturartekotasuna ardatz duen hezkuntza proiektuak bideratzeko gaitasunak bultzatzeko.
- Irakasleen sarbidea ere aztertu behar da, batez ere hasierako prestakuntza eta lanbidean sartzeko orduan igarobideak modu argian zehaztu, euskarri formatiboak jarri eta lortzen den gaitasun maila ebaluatzeko. Horrekin lanbidearen prestigioan eragin daiteke.

E. TOKIAN TOKIKO GOBERNANTZA PARTEKATUA

- Tokian tokiko eskumenak banatu, zehaztu eta definitu behar dira, deszentralizazioaren aldeko apustua eginez. Administrazio eta erakunde bakoitzak dituen zeregin eta ardurak argitu eta banatu behar dira. Partekatze politikoa ziurtatu behar da.
- Udalek paper berezia izan behar dute, markoa eta egituratze prozesurako baliabideak eskaintzeko, komunitateari, herriari eta familiei begira. Horretarako, beharrezkoa da udalen eskumenak sendotzea.
- Tokian tokiko administrazioa burua/gobernu taldearen konpromisua eta inplikazioa ezinbestekoa izango da. Udalen rol protagonista landu behar da. Paradigma aldatu beharra dago, udalek duten arduren jabe izan behar dute eta beren protagonismoa hartu: "nola lortu gure herriko ikasleen arrakasta?" galderari erantzuna eman behar diote.
- Lankidetzaren eremua ohiko egituretan presentzia, erreferentzialtasuna eta legitimazioa izan behar dute. Horretarako konplizitatea landu behar da estrategia partekatua adostuz, plazaratuz eta ikusgarria egiten.
- Aurrekoari bidea ematen laguntzeko bi elementu izango dira beharrezkoak: Unibertsitateekin elkarlana eta elkarbizitza foroak sortzea. Sentsibilizazioa eta ezagutza komunitarioa sortzen lagunduko duten elkarguneak, agorak, laborategiak sortzea beharrezkoa izango da.
- Udalek familiei harrera prozedurak baliabidez hornituz badute zeregina. Atzerritik datozen ikasle eta familiei harrera integrala egin behar zaie, saretzea lantzeko. Eskola, eta hezkuntza komunitatea behar da izan harrera espazio integrala; eta harrera hau sistematizatu egin behar da. Gizarte zerbitzuetan, asistentzialismoa ekidin, eta beste laguntza zerbitzuak sortu- definitu- adostu... Gizarte Zerbitzuak sendotu.